

Maiatzaren 26an
6. PAZKO IGANDEA

Gaixoen Mundu Jardunaldia

Agurra

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Jauna gure artean dagoela jakinik bildu gara geure senideok. Senide izate horretan sakondu nahi dugu, gure arteko lokarriak sendotu, bidelagun garela ospatu. Gaixoen Mundu Jardunaldian otoitz berezia egingo dugu: Kristoren piztueraren indar salbagarria osasun eta zorion emaile gerta dadin.

Bataio-urez zirtatzea

Senideok: Eukaristia ospatzera goaz; Bataiokoan bat egin genuen era berezian Kristo Piztuarekin eta berak bildu gaitu gaur bere mahaian. Geure Bataioa oroitzuz bat egin dezagun Jainkoarekin.

Herria zirtatuko du apaizak elizan barrena ibiliz.

Bitartean kantu egokiren bat: ikus liburuxka honen 64. orrialdean.

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.

R/. Amen.

Erruki, Jauna. R/. Erruki, Jauna.

Kristo, erruki. R/. Kristo, erruki.

Erruki, Jauna. R/. Erruki, Jauna.

Aintza zeruetan

Gora dezagun elkarrekin kantatuz, biziaren sortzaile dugun Jainkoa.

Otoitza

**Jainko ahalguztiduna,
hilen artetik biztu den gure Jauna goresteko
ospatzen ditugu egun pozgarri hauek;
egizu, oroigarri horietan aitortzen duguna,
beti geure egintzetan bete dezagula.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren Maitasuna dohaina da, gure gizatasuna berritzen duen dohaina. Maitasun hori gordetzea, eta maitasun horren arabera bizitzea, gizaki bete eta zoriontsu izateko bide bikaina dugu.

Lehenengo irakurgaia (Eg 10, 25-26. 34-35. 44-48)

Apostoluen Eginetatik

Egun haietan, Pedro sartzera zihoala, Kornelio bidera atera zitzaion eta oinetaraino ahuspeztu. Pedrok altzarazi zuen eta esan zion: «Zuti zaitetz; ni ere gizona naiz zu bezala».

Pedro honela mintzatu zen: «Garbi ikusten ari naiz, Jaungoikoak ez duela bereizkeriarik egiten; baizik eta onartzen duela, Haren beldur dena eta zuzen dabilena, edozein herritakoa dela ere».

Oraindik Pedro hizketan ari zela, Espiritu Santua jaitsi zen, hitza entzuten zeuden guztien

gainera. Pedrokekin etorritako fededun erdainduak harriturik gelditu ziren, jentilen gainera ere Espiritu Santuaren dohaina jaisten ikusita, hizkuntza arrotzetan mintzatzen eta Jaungoikoa goratzen ari baitziren.

Orduan esan zuen Pedrok: «Uka al diezaieke inork Bataioko ura, guk bezala Espiritu Santua hartu duten hauei?» Eta Jesu Kristoren izenean bataiatzeko agindu zuen. Eta gero haiek, egun batzutan berekin gelditzeko eskatu zioten.

Erantzun-salmoa (Sal 97, 1. 2-3ab. 3cd-4)

I - ku - si du - te lur mu - ga de - nek gu - re Jain - ko -
 a - gan - di - ko ga - rai - pe -

Kanta Jaunari kantu berri,
 egin baititu hainbat harrigarri.
 Bere eskuinak eman dio garaipena,
 bere beso santuak. R/.

Ezagutarazi du Jaunak Beragandiko garaipena,
 agertu du atzerrien aurrean bere zuzentasuna.
 On eta leial izan dela gogoratu du,
 Israel etxeari buruz. R/.

Ikusi dute lur-muga denek,
 gure Jainkoagandiko garaipena.
 Lur osoa, egiozu txalo jaunari,
 egin oihu eta irrintzi, egin eresi. R/.


Bigarren irakurgaia (1 Jn 4, 7-10)

San Joan Apostoluaren epistolatik

Senide maiteok: Maita dezagun elkar, maitasuna Jainkoagandik baitator, eta maite duen guztia Jainkoagandik jaioa da eta ezagutzen du Jainkoa. Maite ez duenak ez du ezagutzen Jainkoa, Jaungoikoa maitasuna baita.

Jainkoak digun maitasuna honetan agertu zen: Jainkoak bere Seme bakarra bidali zuela lurrera, gu Haren bidez bizi gaitezen. Maitasuna badela, honetan agertzen zaigu: ez guk Jainkoa maite izan dugulako, baizik eta Hark gu maite izan gaituelako, eta bere Semea gure bekatuen bake opari bidali zuelako.

Aleluia (Jn 14, 23b)



Ni maite nauenak, beteko du nire hitza
-dio Jaunak-;
nire Aitak maiteko du,
eta harengana etorriko gara. R/.

Ebanjelioa (Jn 15, 9-17)

Homiliarako argibideak

Espirituak gogoratuko dizue dena

Historiaren zatirik handienean, ahozko kulturari bizi izan da gizateria, eta oso garrantzitsua zen memoria. Gutako asko kultura idatzian bizi gara, eta gogoan ditugu, oraindik, garai bateko azterketak, historiakoa batez ere; izen, gertaera eta data ugari ikasi

behar ziren buruz. Gure disko gogorraren antzekoa zen **memoria**, hantxe zegoen gordeta gure jakite guztia.

Gaur egun, gure ordenagailuetan dago gure jakitea, eta sarera konektatuta, mugarik gabeko informazioa eskura dezakegu ia. Lehen, **geure barruan** zegoen jakitea; orain, berriz, gugandik kanpo dauden gailuetan. Memoria egitea gogoratzea zen, gure bihotzean, gure barruan murgiltzea, nahiz eta gure garunaren eragiketa izan. Memoriak sakontasuna ematen zion gure bizitzari. Gaur egun, orainaldi arruntaren azalean bizi diren ekipajerik gabeko bidaiariak ematen dugu.

Apostoluek transmititu diguten Jaun Berpiztuaren esperientziarekin lotuta dago kristautasuna. Haren memoria egitea Hura gure bizitzan presente egitea da. Horrela, **Tradizio handian** ainguratuta daude gure existentziak, ez iraganean, eliz bizitzaren orainaldian baizik. Nola eguneratzen da iragan hori? Ez da atzera egin eta orainera ekartzen digun gure memoriaren ahalegina. Espiritu Santuaren ekintza da, Kristoren misterioa gaurko egiten duena. Espirituak etengabe jarduten du Elizan, fededun bakoitzean eta mundu osoan. Espirituak Kristoren misterio amaiezinean sartzen gaitu (*Jn 14, 23-29*). Elizaren historia guztia misterio hori bizitzea eta presente egitea da.

Ebanjelioak, apostoluen gutunak eta Itun Berriko gainerako idatziak dira Espirituaren ekintzaren lehen fruitua, Kristok esandako gogorarazten diguna, Espiritu horrek **inspiratutakoak**. Egia da Espiritu hori lanean ari zela Kristo etorri aurretik, eta horrek inspiratuta jarri zen idatziz Itun Zaharra deiturikoa. Bertan, Jainkoaren eta bere Israelgo herriaren salbazioaren historia gogorarazten eta eguneratzen da.

Espirituari esker, Jesusen irakaspenak ez dira liburu itxi bat, **errealitate bizia** baizik, eta bizia aurkitzen du fededunak. Horrela,

Elizak ez du mekanikoki errepikatzen Jesusengandik jasotakoa; aitzitik, Espirituaren bitartez, gero eta gehiago sartzen da Jainkoaren errebelazioan (Eg 15, 1-2; 22-29). Ez da ulermen intelektual hutsa, garai bakoitzeko eskaeren arabera bizitzako errealitatea baizik. Hala, Berri Ona da beti Ebanjelioa herri bakoitzarentzat, kultura bakoitzarentzat eta egoera historiko bakoitzarentzat. Kristorekin elkartzearen bizi-esperientzia propioaren bitartez, kristau fedearen errealitatea aberasten du fededun bakoitzak, kultura guztietan haragitzeko gai dena.

Elizan eta gutako bakoitzean eragiten duen barne Maisua da Espiritua. Hura da Elizak erakusten duen **egiaren bermea**, eta Jesusen hasi eta Elizaren bitartez guregana iristen den Tradiziotik sekula ez desbideratzea egiten du. Espirituak gutako bakoitzean duen presentziak Elizak proposatutako Jesusen irakaspena kanpoko, inposatua ez izatea egiten du, baizik eta fededunak Espiritutik zuzenean ikasten duen horretan du oihartzuna. Hark sortzen du fededunaren eta Kristoren Elizaren arteko sintonia.

Eukaristian eguneratzen ditugun Jesusen ekintzen bitartez erakusten digu Espirituak. Hark Kristoren misterioan sar gaitzan eska diezaiogun, gure munduan bizi eta presente egin ahal izateko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Zuzen diezazkiogun gure otoitzak Aitari, beti gure alde ari den Kristorekin bat eginik:

Erantzuna: **Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!**



En - tzun, Zuk Kris - to, he-ri ho - nen oi-hu - a.

- Hilik egon ondoren, orain betirako bizi denak, eman diezaiola Elizari sendotasun eta ausardiaz Bere piztueraren testigu izatea. Egigun otoitz. R/.
- Apostoluei bere bakea eman zien Jaun Piztuak, eman diezaiela bake bera herrialde guztiei. Egigun otoitz. R/.
- Heriotza garaitu zuenak, bihur dezala gaixoen, hilzorian daudenen eta ezinean dauden guztien nekea, inork kenduko ez dien egiazko poz. Egigun otoitz. R/.
- Zeruko erreinuaren giltzak dituenak, eman diezagula egunen batean bere piztuera zeruko mahaian ospatzea. Egigun otoitz. R/.

Jainko Jauna, Zuk maitatu gaituzu gu lehenengo Zure Semea bidaliz, Berari esker bizi gaitezen; entzun gure otoitzak eta egizu, Espiritu Santuaz beterik, ikas dezagula elkar maitatzen Kristok maitatu gaituen bezala. Errege bizi baita, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Pozik gatoz mahaira, ogi-ardotan ematen zaigun Kristorekin bat egitean, kontura gaitezen geure buruak emateak dakarren pozaz.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jainko ahalguztiduna,
betiko bizirako sortu gaituzu Kristoren biztueran;
ugari itzazu guregan bazko sakramentuen fruituak
eta isur gure bihotzetara janari salbagarri honen indarra.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Bedeinkapen nagusia (*Ikus liburuxka honetako 78-79. orrialdeetan*)